

2

Ingurune euskalduneko gazteak eta hizkuntza idatzia, eskolan eta eskolatik kanpo

HAUSNARTU Euskal Soziolinguistika Sarien VI. Edizioko
BIGARREN SARIA (2013)

Garbiñe Bereziartua Etxeberria

Pedagogian Doktoa. DREAM taldeko ikertzailea

garbibere@gmail.com

Sarrera-data: 2013-09-30 / Onartze-data: 2013-12-30

Laburpena. Gazteek idatzizko hizkuntza erabiltzen duten eremua ez da mugatzen eskolaren lau hormetara. Azken urteetan teknologiak izandako garapenak eta horren baitan sortu diren komunikatzeko bide berriek hizkuntza erabiltzeko gune eta modu berriak sorrarazi dituzte. Kasu honetan, hizkuntza gutxitu baten testuinguruak eskaintzen duen aberastasunaren barruan uztartu nahi izan ditugu teknologia eta gazteak. Euskal Herriaren barruan askotarikoak dira errealitate soziolinguistikoak, baina oraingoan hizkuntza gutxitua nagusi den ingurune batean jarri dugu begia. • **Hitz-gakoak:** *Gazteak, idatzizko hizkuntza, teknologia, ingurune euskalduna, hizkuntza-ukipena.*

Abstract. The sphere in which young people use written language is not restricted to the four walls of school. The development in technologies over the last few years and, within them, the new means of communicating, have created new spaces and ways of using the language. In this case, we set out to bring together young people and technology within the wealth offered by the context of a minority language. Within the Basque Country there are all kinds of sociolinguistic realities, but on this occasion the aim was to focus on an environment in which the minority language becomes a major one. • **Key words:** *Young people, written language, technology, Basque-speaking environment, language contact.*

SARRERA

I

Azken urteetan teknologia ikaragarri ari da garatzen, eta gure bizitzetan bere tokia hartzen ari da. Batetik, teknologiaren garapenarekin komunikatzeko bide berriak sortzen ari dira eta, horien baitan, komunikatzeko modu berriak garatzen ari dira. Eta, nola ez, eremu horretan erabiltzen den hizkuntza garai eta moduetara egokitzen ari da. Bestetik, gaur eguneko nerabe eta umeak dira teknologia horiek txiki-txikitatik barneratzen ari direnak. Bi alderdi horiek izan dira ikerketa honen abiapuntu.

Gure interes-guneak zehaztu eta jakin-mina asetzeko, ingurune euskaldun bateko gazteen idatzizko hizkuntzari begira jarri gara. Gaur eguneko gazteek idatzizko hizkuntza asko erabiltzen dute, bai eskolaren testuinguruan eta bai eskolatik kanpokoan. Eta guk hori aztertu nahi izan dugu, beti ere hizkuntza gutxitu baten testuinguruan egoteak alderdi horiei eranstean dien aberastasuna eta konplexutasuna kontuan hartuta.

Horretarako, lehenik eta behin gure ikerketaren helburuak zehaztu ditugu eta lau izan dira finkatutako helburuak. Hasteko, gauza jakina da hizkuntza bat baino gehiago ukipenean egotea ohiko gertaera dela munduan zehar eta egoera bakoitzak bere ezaugarriak izan ohi dituela. Gure ikerketa euskara nagusi den testuinguru batean gauzatu dugu (Azpeitian), baina hala eta guztiz ere bi hizkuntza edo gehiago ukipen egoeran dauden ingurune bat da. Gure ikerketarekin Azpeitiko gazteen hizkuntza-ohiturak zein diren eta beren idatzizko ekoizpenean (berezioki eskolatik kanpokoan) kodeak zein neurritan nahasten dituzten ikusi nahi izan dugu. Bigarren, hizkuntza bat edo bestea aukeratzeko garaian hainbat faktorek eragiten dute. Ikerketa honekin, guk aukeratu dugun testuinguruko gazteei gaztelaniara jotzeko zein faktorek eragiten dieten aztertu nahi izan dugu. Hirugarren, gazteak-teknologia binomioan jarri dugu fokua. Batetik, nerabezaroan identitatea eraikitzen joaten dira gazteak eta hor funtzio garrantzitsua betetzen du hizkuntzak; bestetik, teknologiaren garapenarekin komunikatzeko bide eta modu berriak sortzen ari dira, eta horrekin batera baita hizkuntza-aldaera berriak ere. Gaur eguneko gazteak komunikatzeko bide berri horiek erabiltzen dituzte eta gure ikerketarekin jakin nahi izan duguna da gazte horiek esparru informalean elkarren artean idatziz komunikatzen direnean erabiltzen duten hizkuntzak zein ezaugarri dauzkan. Azkenik, teknologiaren bitartez komunikatzeko erabiltzen den hizkuntza-aldaera berri horrek kezka piztu du zenbaitengan. Beraz, gure ikerketarekin ikusi nahi duguna da gazteak beren idatzizko hizkuntza testuinguru informaleran nahiz akademikora egokitzeko gai al diren eta esparru in-

Azken urteetan teknologia ikaragarri ari da garatzen, eta gure bizitzetan bere tokia hartzen ari da. Batetik, teknologiaren garapenarekin komunikatzeko bide berriak sortzen ari dira eta, horien baitan, komunikatzeko modu berriak garatzen ari dira.

**Gure
ikerketarekin
ikusi nahi
duguna da
gazteak beren
idatzizko
hizkuntza
testuinguru
informalera
nahiz
akademikora
egokitzeko gai al
diren eta esparru
informalean
erabiltzen duten
hizkuntzak
eragiten al dion
esparru
formalean
erabiltzen
dutenari.**

formalean erabiltzen duten hizkuntzak eragiten al dion esparru formalean erabiltzen dutenari.

Behin ikerketaren helburuak zehaztuta, gure jakin-mina lau ikerketa-galderatan planteatu dugu, hala nola: (1) Zeintzuk dira testuinguru euskaldun bateko gazteen hizkuntza-ohiturak eta zenbateraino nahasten dituzte kodeak? (2) Zeintzuk dira hizkuntza bat edo bestea aukeratzeko garaian eragiten duten faktoreak? (3) Zein ezaugarri dauzka gazteek esparru informalean idatziz komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntzak? eta (4) Ikasleak gai al dira testuinguru akademikoa eta informala bereiztuz hizkuntza idatzia testuinguru batera eta bestera egokitzeko?

Ikerketaren helburuak eta ikerketa-galderak kontuan hartuta, horiei erantzuna emateko prozesua diseinatu dugu. Ikerketa honetako parte-hartzaileak Azpeitiko 3 ikastetxeetako DBH-3 eta DBH-4 mailetan ikasten duten ikasleak (guztira 299, 14-16 urte bitartekoak) eta ikasle horien 8 irakasle izan dira. Eta datuak biltzeko hainbat tresna erabili ditugu: ikasleei betearazitako galde-sortak, ikasleei betearazitako hizkuntza egunerokoak, ikasleekin egindako talde-eztabaidak, irakasleekin egindako bakarkako elkarrizketak, ikasleek sare sozialetan elkarren artean modu pribatuan izandako elkarrizketak eta ikasleek ikastetxerako egindako idazlanak.

MARKO TEORIKOA

I

Hizkuntza-ukipen egoerak

Euskararen ezagutza eta erabilerari buruzko datuak ezagutzeko nagusiki bi tresna dauzkagu eskura: Eusko Jaurlaritzako “Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza”k egindako Inkesta Soziolinguistikoa (Eusko Jaurlaritza, 2012) eta Soziolinguistika Klusterrak egindako Hizkuntzen kale-erabileraren neurketa (Soziolinguistika Klusterra, 2012). Horiez gain, ikasleen hizkuntza-erabilera aztertzen du Arrue proiektuak (Arrue-ED2011, 2012).

Azpeitia soziolinguistikoki oso euskalduna den testuingurua da, baina hala ere hizkuntza bat baino gehiago elkarreraginean dauden testuinguru bat da, munduko toki asko bezala. Munduan zehar herrialde askotan aurki daitezke harremanetan dauden bi hizkuntza edo gehiago (Todeva & Cenoz, 2009).

Hizkuntza bat baino gehiago kontaktuan daudenean, hainbat fenomeno sortzen dira harreman horren ondorioz. Eta gehien aztertu den fenomenoetako bat kode-aldaketarena (*code-switching*) izan da (Esnaola, 2000; Edwards, 2008). Eta kodeak nahaste horren atzean dauden arrazoen bila ikertzaile asko aritu izan da (esaterako: Gumperz, 1982; Grosjean, 1982, 2010; Muñoa, 2002; Pitkänen-Huhta eta Nikula, 2013).

Aipatu izan dituzten arrazoen artean daude, besteak beste: hutsune linguistikoak betetzea, esapide jakin batzuk adierazkortasun gehiago edukitzea beste hizkuntzan, estatusa igotzea, distantzia soziala sortzea, norbait baztertzea, aditutasuna azpimarratzea edota umorezko zenbait adierazpenek beren funtsa galduko luketela itzuliz gero.

Gazteak

Hizkuntza-komunitate baten barruan nerabeena oso sektore interesgarria eta mamitsua da. Hiztunak esperimenduak egiten ditu identitatea eraikitzeke prozesuan, eta hori bereziki gazteen artean gertatzen da. Hizkuntza baten erabiltzaileak bere eguneroko bizitzan hainbat hizkuntza-aukera txertatzen dituenean nolabaiteko identitatea eratzen ari da.

Højrup eta Møller-ek dioten bezala (2010:227): “The language user can refer to a certain group by using one specific expression, one vocabulary or other linguistic features”. Esnaolak (1998) ere esaten du gazteek beren identitate propioa eraiki nahi dutela, gainontzeko adintaldeetatik bereizteko, eta horretarako erabiltzen duten baliabideetako bat hizkuntza dela. Testuinguru horretan, “dibergentzia” hitza erabiltzen du Esnaolak (1998), “inklusioa eta esklusioa” Le Page eta Tabouret-Keller-ek (1985), edota “social marker” Vermeij-ek (2004).

Gazteak, hizkuntza eta identitatea ikertzeari heldu izan dio hainbat soziolinguistak (Jørgensen, 2010). Androutsopoulos-ek (2005) dio, 1980. hamarralditik aurrera geroz eta ikerketa gehiago egin izan direla gazte-hizkeraren inguruan, eta hainbat modutara deitu izan zaiola, esaterako: *langue des jeunes* edo *parler jeune* frantsesez, *lingua dei giovani* italieraz, *jugendsprache* alemanez, *ungdomsspråk* suedieraz, *teenage talk* edo *teenage speech* ingelesez, eta abar. Eta beste argitalpen batzuetan ikusten dugu adiera berriak ere asmatu direla, esaterako “slang” terminoa erabiltzen dute Stenström, Andersen eta Hasund-ek (2002) beren liburuan.

Hala ere, Stenström, Andersen eta Hasund-ek (2002) esaten dute gazteek beren hizkuntza egokitu egiten dutela ingurune sozialera, eta ez dutela modu berean hitz egiten toki batean eta bestean. Horrela, ez dutela hizkuntza bera erabiltzen lagun bati txiste bat kontatzeko, ikasgelan irakaslearen galderari erantzuteko edo gurasoekin etxekolanei buruz hitz egiteko. Eta azpimarratzen dute nerabeek badutela trebetasuna beharrezko den tokietan modu formalean hitz egiteko.

Teknologia

Azken urteetan, hizkuntza erabiltzeko esparruak eta bideak ugartu egin dira. Teknologiarekin garapenarekin komunikatzeko bide berriak sortu dira,

Hizkuntza-komunitate baten barruan nerabeena oso sektore interesgarria eta mamitsua da. Hiztunak esperimenduak egiten ditu identitatea eraikitzeke prozesuan, eta hori bereziki gazteen artean gertatzen da.

**Teknologiaren
garapenarekin
komunikatzeko
bide berriak
sortu dira, eta
komunikatzearen
oinarrian
hizkuntza egonik,
hizkuntza
erabiltzeko modu
berriak jaio dira.**

eta komunikatzearen oinarrian hizkuntza egonik, hizkuntza erabiltzeko modu berriak jaio dira. Horrek bereziki eragiten dio idatzizko hizkuntzari.

Esparru informalean eta, bereziki, teknologiaren bitartez erabiltzen den idatzizko hizkuntza ezaugarri propioak garatzen joan da. Oraindik gauzak erabat argitu gabe egon arren, eta izendapen bat ala bestea erabili arren, hizkuntza-aldaera berri bat sortzen ari dela dirudi. Crystal-en (2001) arabera, *Netspeak*; Varnhagen eta bere kideentzat (2010), *New Language*; eta Androutsopoulos-ek (2000:514) nahiago du *Non-Standard Spelling* izendapena erabiltzea.

Hizkuntzaren aldaera berri horren ezaugarriak sailkatzeko ahalegin bat baino gehiago egin izan dira. Esaterako, Varnhagen eta bere kideek (2010) berehalako mezuetan (txat) erabiltzen den hizkuntza aztertu dute eta hizkuntza berri horri dagozkion ezaugarrien artean 14 motatakoak aurkitu eta hiru multzotan sailkatu dituzte: komunikazioa azkartzeko laburdurak, aurrez aurreko komunikazioan hitzak erabili beharrik gabe adierazten diren ñabardurak ordezkatzeko baliabide pragmatikoak eta akats tipografikoak.

Androutsopoulos-ek (2000) Alemaniako azpi-kultura mugimenduetako fanzineetan erabiltzen zen ortografia aztertu zuen eta hor erabiltzen zen hizkuntzak zituen ezaugarrien tipologia bat proposatu zuen. Sei multzotan sailkatzen ditu ezaugarri horiek: (1) *Phonetic spellings* (esaterako, “was” idatzi beharrean “wuz” idaztea); (2) *Colloquial spellings*; (3) *Regiolectal spellings*; (4) *Prosodic spellings* (adibidez, bokalak luzatzea); (5) *Interlingual spellings*; eta (6) *Homophone spellings* (adibidez, “you” idatzi beharrean “U” idaztea).

Euskal Herriko gazteen idatzizko hizkerak aztertu ondoren, Amonnarriz-ek (2008) dio hizkuntza berri horren ezaugarrietako bat transgresio nahia dela. Dioenez, estandarren arauak ez dira errespetatzen eta ekonomia eta adierazkortasuna bilatzen dira, ulergarritasuna da arau bakarra. Eta hizkera berriaren ezaugarrien artean aipatzen ditu honakoak: laburdurak (akronimoak, H-a desagertzea, silaben ordezkariak zenbakiak erabiltzea), ikonoak, indargarriak (beste hizkuntzetatik hartutako hizkien irakurketa, onomatopeiak, letra larriak, puntuazio markak errepikatzea, hizkiak errepikatzea), hizki larririk eta puntuazio markarik ez erabiltzea, akats ortografikoak egitea eta ahozkotik hurbil egotea.

Baina, ikusitakoak ikusita, oro har airean dabilen galdera honakoa da: testuinguru informalean erabiltzen den hizkuntza idatziak kalte egiten al dio testuinguru formalekoari?

Varnhagen eta bere kideek (2010) mota guztietako iritziak bildu dituzte. Prentsak, zenbait ikertzailek, irakaslek eta gurasok pentsatzen

dute berehalako mezuetan erabiltzen den hizkuntza okerra eta kaltegarria dela (Oxford Learning, 2006; Lee, 2002). Baina beste aditu batzuk (Lewis & Fabos, 2005; Merchant, 2001; Spatafora, 2008; Tagliamonte & Denis, 2008) uste dute jargoi bat besterik ez dela, alegia, ingeles hizkuntzaren garapeneko prozesu soil bat. Beste batzuk, berriz, (Crystal, 2001; Davis & Brewer, 1997) oraindik haratago doaz eta diote kaltegarria ez izateaz gain, onuragarria eta osagarria dela; sarearen bitartez egiten den komunikazioan garatu diren hizkuntza-egitura berriek hizkuntzaren aldaera berri bat (*new media language*) sortu dutela. Eta gainera, hizkuntza berri horrek ikasleei mesede egin dakiekeela, sormena eta alfabetatzea bultzatuz (Sternberg, Kaplan & Borck, 2007).

Varnhagen eta kideen (2010) ikerketak erakutsi du, prentsak eta gurasoek uste izan dezaketenen aurka, ortografia gaitasuna (*spelling ability*) ez dagoela erlazionatuta berehalako mezuetan (txat) erabiltzen duten hizkuntzarekin. Diotenez, oro har ortografia hutsegiteak egiten diren arren, horiek ez daukate zerikusirik berehalako mezularitzan erabiltzen den hizkuntzaren aldaera berri horrekin.

EMAITZAK

I

Ikerketa-galdera bakoitzari erantzunez erakutsiko ditugu emaitzak.

1. Zeintzuk dira testuinguru euskaldun bateko gazteen hizkuntza-ohiturak eta zenbateraino nahasten dituzte kodeak?

Gaitasunari buruz jaso ditugun emaitzen arabera, ikerketa honetako parte-hartzaileen arteko ia %90a erosen sentitzen den hizkuntza euskara da, eta euskara erabiltzen du bere buru-barneko pentsamenduetan (%87-88, hurrenez hurren). Eta jarduera zehatzei buruz galdetu diegunean ere emaitza bertsuak jaso ditugu: lagunekin txat-ean aritzean edo aurrez aurre hitz egitean euskaraz sentitzen dira erosen (%90etik gora), eta euskaraz erosotasunik gutxiena liburuak irakurtzean (%54,9) eta gustuko blog-ak irakurtzean (%69,9) sentitzen dute.

Pertsonartean komunikatzeari dagokionez, ikusi dugu euskara erabiltzen duela ikasleen arteko hiru laurdena baino gehiagok familiarekin komunikatzeko, lagunartean komunikatzeko eta eskolako testuinguruan komunikatzeko. Baina badago joera gaztelaniazko hitz solteak erabiltzeko, eta kasu batzuetan baita espresio edo esaldiak ere.

Teknologia tarteko dela gauzatzen dituzten jarduerari dagokienez, alde handia dago jarduera batetik bestera. Galde-sortan jasotako eran-

Varnhagen eta kideen (2010) ikerketak erakutsi du, prentsak eta gurasoek uste izan dezaketenen aurka, ortografia gaitasuna (*spelling ability*) ez dagoela erlazionatuta berehalako mezuetan erabiltzen duten hizkuntzarekin. Diotenez, oro har ortografia hutsegiteak egiten diren arren, horiek ez daukate zerikusirik berehalako mezularitzan erabiltzen den hizkuntzaren aldaera berri horrekin.

**Gaitasunari
buruz jaso
ditugun emaitzen
arabera, ikerketa
honetako parte-
hartzaileen
arteko ia %90a
erosoen sentitzen
den hizkuntza
euskara da, eta
euskara
erabiltzen du
bere buru
barneko
pentsamenduetan
(%87-88,
hurrenez
hurren).**

tzunetan ikusi ahal izan dugunez, teknologiaren bitartez burututako jardueretan ikasleen ia hiru laurdenak beti euskara erabiltzen du SMS mezuak idazteko eta sare sozialetan lagunekin komunikatzeko. Aldiz, ikasleen erdia inguruk euskara gutxitan erabiltzen dute interneten bilaketak egiteko, gustuko web-orriak ikusteko, interneteko jokoetan aritzeko, telebista ikusteko eta filmak ikusteko. Ikasleen herena inguruk euskara gutxitan eta beste herena inguruk sarritan erabiltzen dute euskara gustuko blogak irakurtzeko, blogetan parte hartzeko eta musika entzuteko. Ikasleen herena baino gehiagok euskara inoiz erabiltzen ez duen gailu elektronikoak PSP (Play Station Portable) edo antzerako jokoak dira.

Gailu elektronikoen softwareak dira gaztelaniak presentzia gehien daukan eremua. Ikasleen gehiengoak (hiru laurdenetik gora) gaztelaniara jotzen du sistema operatiboa, nabigatzailea, testu-lanketako programak eta jokoak erabiltzean. Euskarak presentzia apurtxo bat gehiago (ikasleen arteko herena inguru) dauka posta elektronikoetan eta telefono mugikorren konfigurazioan.

Eta sare sozialetan komunikatzeari dagokionez, lehenik eta behin esan behar dugu ikasle ia-ia guztiek (%97,7) erabiltzen dituztela, gehienentzat (%86) komunikatzeko gehien erabiltzen duten bidea txat-a dela eta gehien-gehiengoak (%91,6) euskara erabiltzen duela iruzkinak idatzi edo txatean aritzeko. Sare sozialen bitartez ikasleen gehiengo zabala (%79,9) koadrilakoekin komunikatzen da eta horretarako euskara erabiltzen dute gehien-gehienek (%80). Ikasleekin egindako talde-eztabaidetan ñabardura gehiagoko informazioa bildu ahal izan dugu, eta hor ere berretsi dute nagusiki euskara erabiltzen dutela sare sozialetan aritzeko baina idatzizko testuinguru informalean gaztelaniak presentzia handiagoa daukala ahozkoan baino, edo agian presentzia handiagoa edukitzea baino zehatzago esanda ikasleek beraiek gaztelania erabiltzen dutenaren kontzientzia handiagoa dutela idatzizkoan.

Bestalde, ikasleek esparru informalean izandako idatzizko elkarrizketak aztertzean jakin nahi izan dugun gauzetako bat gaztelania zenbateraino erabiltzen duten izan da. Horretarako gaztelaniazko hitz solteak (*admitiu, apetxugau, repetiziyotan, mierda, terremotue, seguramente*), esakuntzak (*etoy en el facebook, ke pasa antipatika, deseame suerte*) eta hitz-multzoak (*a joderse, a ver, que raro, en fin, la hostia, porque*) zenbatu ditugu elkarrizketa guztietan.

Hitz solteak aztertu ondoren, ikusi dugu elkarrizketen arteko %90ean agertzen dela gaztelaniazko hitz solteren bat, eta elkarrizketa bakoitzean %3,6 hitz gaztelaniazkoak erabiltzen direla batez bestean. Antzerako zerbait gertatzen da hitz-multzoekin ere. Kasu honetan el-

karrizketen arteko %80 baino gehiagotan agertzen da hitz-multzoren bat, eta batez beste %2,7 hitz erabiltzen dira elkarrizketa bakoitzean gaztelaniazko hitz-multzoak aipatuz. Esakuntzen kasuan bestelakoak dira datuak. Elkarrizketen arteko bi heren baino gehiagotan ez da gaztelaniazko esakuntzarik agertzen eta hitzen arteko %5 baino gehiago gaztelaniazko esakuntzak aipatzeko erabiltzen diren elkarrizketak %14,8 dira.

Beraz, esan dezakegu gaztelaniazko hitz solteak eta hitz-multzoak erabiltzeko joera handia dagoela, baina ez horrela gaztelaniazko esakuntzak tartekatzeke.

2. Zeintzuk dira hizkuntza bat edo bestea aukeratzeko garaian eragiten duten faktoreak?

Hizkuntzen aukeraketan eragiten duten faktoreen gaia asko landu izan da soziolinguistikaren eremuan, eta faktore horiek sailkatzeko hainbat proposamen egin izan dira. Sailkapen horiek Euskal Herrira egokitu dituenetako bat Martínez de Luna (2001) izan da, eta hari horri tiraka Soziolinguistika Klusterrak (2009) gazteen hizkuntza-erabileran eragiten duten faktoreak aztertu zituen.

Bi lan horiek oinarri hartuta, gazteen hizkuntza-aukeraketan eragiten duten faktoreak hiru mailatan bereizten dituen sailkapena hartu dugu ardatz gure ikerketako zati hau garatzeko.

Maila indibidualean kokatzen diren faktoreen artean familiaren jatorria eta etxean jasotzen den input-a nabarmendu dituzte gure ikerketako ikasle nahiz irakasle gehienek.

Ikasle nahiz irakasleekin maila mikrosozialeko faktoreei buruz aritu garenean, hainbat aldagai atera dira mahai gainera. Bereziki nabarmendu dira arau sozialen eragina, gaztelania txantxa testuinguruarekin lotzea eta zenbait egoeratan euskararekin sentitzen duten baliabide falta. Baina horiez gain beste zenbait aldagai ere aipatu dira, esaterako: beste herrietako lagunengandik jasotzen duten eragina edota norbere estatusa altxatzeko ahaleginak.

Maila makrosozialean eragiten duten faktoreen artean telebista izan da gehien nabarmendu dena. Telebista eta filmei dagokienez, ikasleek esan dute ikusten duten ia telebista gutzia gaztelaniaz ikusten dutela. Euskaraz ikusten dituzten saio bakarrak *Goenkale* telesaila eta kiroletako saioren bat edo beste izango lirateke. Eta filmak ere gaztelaniaz ikusi ohi dituztela esan dute. Gainera, ikasle-talde bat baino gehiagotan esan dute telebistan entzuten dituzten esapideak beren eguneroko jardunean txertatu ohi dituztela.

Ikerketa honetan parte hartu duten gazteek esparru informalean erabiltzen duten hizkuntzak hainbat ezaugarri dauzkala ikusi dugu. Guri nabarmenenak iruditu zaizkigunak hauek dira:
1) euskalkia erabiltzen dela;
2) laburdurak erabiltzen direla;
eta 3) horrekin batera hainbat estrategia erabiltzen direla ahozko hizkuntzara gerturatzeko ahaleginean, hala nola: hizkiak luzatzea edo errepikatzea, emotikoiak erabiltzea, puntuazio ikurrak errepikatzea edota hizki larriak erabiltzea oihu egitea simulatzeko.

01_A - 1:47 (209:230)

ILAZKI: ya, telebistakuk'e ibiltzeitugu, batzuk

IKERTZAILEA: bai, ez?

ILAZKI: aitu deuna ta...

3. Zein ezaugarri dauzka gazteek esparru informalean komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntzak?

Ikerketa honetan parte hartu duten gazteek esparru informalean erabiltzen duten hizkuntzak hainbat ezaugarri dauzkala ikusi dugu. Guri nabarmenenak iruditu zaizkigunak hauek dira: 1) euskalkia erabiltzen dela; 2) laburdurak erabiltzen direla; eta 3) horrekin batera hainbat estrategia erabiltzen direla ahozko hizkuntzara gerturatzeko ahaleginean, hala nola: hizkiak luzatzea edo errepikatzea, emotikoiak erabiltzea, puntuazio ikurrak errepikatzea edota hizki larriak erabiltzea oihu egitea simulatzeko. Horiekin batera, bada beste ezaugarri bat ere aipatu izan dena, guri besteak bezain nabarmentzekoa ez iruditu arren: hizki larriak eta xeheak tartekatzea testua dekoratzeko helburuz. Guk nabarmendu ditugun ezaugarrien sailkapena eta bakoitzaren adibideak bildu ditugu 1. taulan:

1. taula. Esparru informaleko testuen ezaugarriak

EZAUGARRIA		ADIBIDEA	
Euskalkia		zarautzen jendie eongoa, zumayen anbieñtie eongo omen da, dixkura ezkeo	
Laburdurak	Hizkiak soberan (batez ere bokalak)	Kxo = kaixo, sk = eske, bstla = bestela	Bstla abr hurrengo urtin derbik gabe z inbr deun
	Akronimoak	ZMZ = zer moduz, DP = de puta madre,	Zmz ba azpeiti alde ortan
	Hizki-aldaketa homofonoak (Beste hizkuntzetatik hartutako hizkien irakurketa)	Wapa = guapa, iwal = igual, by = bai	KAIXO WPA!!! buenooo.....iweel tarteka by
Ahozkoa gerturatzeko	Hizkiak errepikatuta	baaai nooskii zeerraaabil? ezeertaan ez	
	Puntuazio-markak errepikatuta (harridura, galdera eta puntuak)	etxea z ordutan?¿? nik zumaira jun naett!!! ustet iñor ez daola....	
	Hizki larriak (oihu egiteko)	EZ ETS!! EUTS!!	
	Emotikoiak	:) = irribarre :P = mingaina aterata :S = zalantza, beldurra	muxuu haundi baat!:) izenaak borrauu ee :P Bier bi esamiiñ :S
Dekorazioa	Hizki larriak eta xeheak nahastea	pOztee naaizz berdU	

4. Ikasleak gai al dira testuinguru akademikoa eta informala bereiziz hizkuntza idatzia testuinguru batera eta bestera egokitzeke?

Ikasleekin egindako talde-eztabaidetan eta irakasleekin egindako banakako elkarriketetan esan digutenaren arabera, ikasleek erraz bereizten dituzte testuinguruak eta ez daukate arazorik hizkuntza testuinguru batera zein bestera egokitzeke.

Hala ere, ikusi dugu bai ikasle eta bai irakasle batzuegan badagoela nolabaiteko kezka ikasleek esparru informalean erabiltzen duten idatzizko hizkuntzak esparru formalean erabiltzen dutenari eragingo ote dionaren inguruan. Baina gehiengoak esan du ikasleek erraz bereizten dituztela testuinguru informala eta akademikoa eta ez dutela sumatzen eremu bateko hizkuntzak bestekoari eragiten dionik.

Esparru informaleko idatzizko hizkuntzaren ezaugarri propiotzat hartu ditugunen zantzurik ia ez dugu aurkitu ikasleen esparru akademikoko idazlanetan (laburdurak eta ahozkoa gerturatzeo estrategiak). Idazlan horietan aurkitu ditugu euskalkiaren zenbait zantzu, oso gutxi izan arren, baina ezin dugu zehaztu esparru informalean idatziz erabiltzen duten hizkuntzaren eraginez gertatzen ote den hori. Eta ikusi dugu eragin sutilagoak egon litezkeela hizkuntzaren beste zenbait alderditan.

01_02 - 2:12 (161:171)

IRAKASLE-2: *etzaten iruizten horrek kalteik ingounik.*

IKERTZAILEA: *ondo bereizteixkiñabe bi zeak, ez?*

IRAKASLE-2: *bai bai. Nik usteñat baietz. Hombre, beste gauza bat den gero estandarrian idatziber denian akatsakin idaztia*

IKERTZAILEA: *bai*

IRAKASLE-2: *baño etzatan iruizten akats hoiek dianikan horreatiken*

IKERTZAILEA: *ya*

IRAKASLE-2: *etzaten iruizten.*

IKERTZAILEA: *bai, ne'ire...*

IRAKASLE-2: *nik usteñat bereiztu iteituela noiz idatziber duen azpeitiarrez edo euskalkian, eta noiz...*

Baina ikasle nahiz irakasleen pertzepzioak ezagutzeaz gain errealtatean gertatzen dena zer den ikusi nahi izan dugu, eta neurri hanundi batean ikusi dugun horrek bat egiten du ikasle nahiz irakasleen pertzepzioekin. Esparru informaleko idatzizko hizkuntzaren ezaugarri propiotzat hartu ditugunen zantzurik ia ez dugu aurkitu ikasleen esparru akademikoko idazlanetan (laburdurak eta ahozkoa gerturatzeo estrategiak). Idazlan horietan aurkitu ditugu euskalkiaren zenbait zantzu, oso gutxi izan arren, baina ezin dugu zehaztu esparru informalean idatziz erabiltzen duten hizkuntzaren eraginez gertatzen ote den hori. Eta ikusi dugu eragin sutilagoak egon litezkeela hizkuntzaren beste zenbait alderditan, esaterako: hizkuntzaren estiloa, gramatika, hiztegia edota ortografia. Baina hori aztertzeo ikerketa gehiago egiteko beharra dagoela konturatu gara.

ONDORIOAK

Ondorioak ere ikerketa-galderen gidoia jarraituz ezagutaraziko ditugu.

1. Zeintzuk dira testuinguru euskaldun bateko gazteen hizkuntza-ohiturak eta zenbateraino nahasten dituzte kodeak?

Gure ikerketan bereziki bi esparruri begira jarri gara ikasleen hizkuntza-erabilera ezagutzeo: pertsonarteko komunikazioa eta teknologia. Gure ikerketako ondorioak ateratzeko, Arrue proiektua (Arrue-ED2011, 2012) hartu dugu erreferentzia gisa.

Eskolako eremuari begira jarrita, gure ikerketaren kasuan euskarak du erabateko nagusitasuna. Arrue proiektuan (Arrue-ED2011, 2012) ateratako ondorioetako bat izan da ikasleen arteko eskolako hizkun-

tza-erabileran eragiten duen aldagairik eraginkorrenetako bat ikasle horiek eskolatik kanpo bizi duten errealitate linguistikoa dela. Gure kasuan, eskolatik kanpo bizi duten errealitate linguistikoa erabat euskalduna da, eta hori bat dator Arrue proiektuan ateratako ondorioarekin.

Familian erabiltzen den hizkuntzari begira jarrita, Arrue proiektuko emaitzek erakutsi duten moduan, guk ere ikusi dugu gurasoekin euskara erabiltzen duten ikasleen kopurua baino handiagoa dela neba-arrebekin euskara erabiltzen dutenena (%75 inguru eta %85 inguru hurrenez hurren). Baina gure ikerketako emaitzen arabera, ikerketan parte hartu dutenen arteko hiru laurden ingururentzat erabat euskara da familiarekin komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntza. Hala eta guztiz ere, gure ikerketan ikasleei familiarekin erabiltzen duten hizkuntza zein den galdetu diegunean, bi galdera egin dizkiegu: batetik, txikitari (6 urtera arte) zein hizkuntza erabiltzen zuten eta, bestetik, gaur egun zein hizkuntza erabiltzen duten. Eta hor deigarria iruditu zaigun datu batekin topo egin dugu: txikitari amak euskaraz egiten zieten ikasleak %71,2 ziren eta ikerketa egindako unean amak euskaraz egiten dietenak %65,3. Familiako kideen artean beste inoren kasuan ez da datua hainbeste aldatu adin batetik bestera. Aldaketa hori bereziki amen kasuan nabarmentzea kontuan hartzeko datua iruditu zaigu. Uste dugu hori horrela gertatzearen atzean egon daitezkeela hainbat arrazoi soziolinguistiko.

Teknologia berriei dagokienez, gure ikerketako ikasleen arteko %91k erantzun du sare sozialetan euskara erabiltzen duela. Horren atzean egon daitezkeen arrazoiak bila hasita, bi dira nabarmentzekoak iruditzen zaizkigunak: testuinguru euskaldunean bizitzea eta euskalki baten jabe izatea. Zalantzarik ez dago testuinguru euskalduna izateak esparru guztietan euskara gehiago erabiltzea ekartzen duela, hori ahalbidetu eta bultzatzen duen heinean. Eta ikusi dugu euskalki baten jabe izateak ere onurak eskaintzen dizkiola hiztunari, hainbat ikuspuntutatik begiratuta.

Bestalde, ikerketa honetan, hizkuntza-praktiketan kode bat baino gehiagoko elementuak nahasten direla ikusten dugu. Datuek erakusten digute euskara eta gaztelaniaren artean malgutasuna dagoela. Hiztunek bi hizkuntzetako elementuak erabiltzen dituzte, neurri handiagoan edo txikiagoan. García-k deskribatzen duen (2009) *translanguaging* deiturikoa gertatzen dela ikusi dugu. Ikasleek sare sozialetan elkarren artean komunikatzeko idatzitakoak aztertu ondoren eta ikasle nahiz irakasleekin hitz egin ondoren, ikusten dugu ikasleek hizkuntzak nahastu egin ohi dituztela testuinguruaren arabera. Hala ere, gure datuek erakusten dute beti ez dituztela hizkuntzak nahasten eta testuinguruaren arabera ikasleak gai direla hizkuntza batean edo bestean aritzeko.

Teknologia berriei dagokienez, gure ikerketako ikasleen arteko %91k erantzun du sare sozialetan euskara erabiltzen duela. Horren atzean egon daitezkeen arrazoiak bila hasita, bi dira nabarmentzekoak iruditzen zaizkigunak: testuinguru euskaldunean bizitzea eta euskalki baten jabe izatea.

Eta kontuan hartu behar ditugu hizkuntza-baliabide horien artean dauden hizkuntza desberdinekin batera hizkuntzaren aldaerak ere. Alegia, *local variety* edo *regiolect* bezala ezagutzen diren eta gure kasuan euskalkiak diren horiek ere hiztunaren hizkuntza-errepertorioa aberasten duten baliabideak dira. Eta hori nabarmen ikusten da ikasleek sare sozialetan beraien artean modu pribatuan komunikatzeko izandako el-karrizketetan.

Beraz, gure ikerketan parte hartu duten gazteen hizkuntza-errepertorioan daude, besteak beste, euskara batua, tokian tokiko euskalkia eta gaztelania. Eta horrek nahitaez Block-ek (2007) deskribatzen duen *superlingual* izaera ematen die. Alegia, hizkuntza bat baino gehiago jakiteak hiztuna hizkuntza horietako bakoitzean *semilingual* izango zela iruditzen zitzaizkion kontra, hiztun hori *superlingual* dela esaten du Block-ek. Hizkuntza-errepertorioan daukan aberastasuna eta hori testuinguru bakoitzera egokitzeko daukan gaitasuna kontuan hartuta.

Hizkuntza gutxituen testuinguruan aurkitzen den beste ezaugarri bat izan ohi da hizkuntza gutxitu bat hitz egiten duten hiztunen artean hizkuntza gutxitua eta hizkuntza nagusia nahastea (ikus Musk, 2010). Hizkuntza gutxitu bateko hiztunek hizkuntza nagusira kodea aldatzearen atzean dauden arrazoiaren artean dago hizkuntza gutxitu horretan baliabide faltan sentitzea. Eta hizkuntza estandarraz gain tokian tokiko aldaerak (gure kasuan euskalkiak) eduki edota jakiteak hiztunaren hizkuntza-errepertorioa zabaltzearekin hiztunaren baliabideak ugartu egiten ditu eta kodez aldatu beharrik ez sentitzea ekar lezake.

2. Zeintzuk dira hizkuntza bat edo bestea aukeratzeko garaian eragiten duten faktoreak?

Ikasleekin egindako talde-eztabaidetan ikusi ahal izan dugunez, maila indibidualeko faktoreen artean familiaren jatorria eta etxean jasotzen den input-a izan dira ikasle nahiz irakasleek gehien nabarmendu dituztenak. Gure ikerketa eleanitza den testuinguru batetan baina hizkuntza gutxituaren arnas-gune batetan gauzatu da. Oro har, gure ikasleen kasuan familiaren jatorria edo etxean jasotzen duten input-a euskalduna da, eta testuinguru soziolinguistikoa ere oso euskalduna da, beraz, ikerketa honetan ez dira horiek ikasleen euskarazko jardunean gaztelania txertatzea bultzatzen dieten faktore nagusiak. Eta horrek aukera ematen du hain indartsuak izan ohi diren bi faktore alde edukita hizkuntzaren aukeraketan eragiten duten beste faktore batzuk identifikatu eta agerian uzteko.

Maila mikrosozialeko faktoreen artean ohituren eta arau sozialen eragina eta zenbait egoeratan euskararekin baliabide faltan sentitzea

izan dira nabarmendutako faktoreak. Ohitura eta arau sozialekin lotuta aipatu dituzten faktoreen artean daude, besteak beste: gaztelania txantxa testuinguruarekin lotzea, gaztelania erabiltzeak norbere estatus soziala altxatzen duenaren ustea edota beste herrietako lagunengandik jasotako inputa. Ikerketa hau testuinguru euskaldunean gauzatu da, baina kontuan hartu behar da oro har Euskal Herrian nagusi den hizkuntza gaztelania dela eta ikerketan parte hartu duten ikasleak hain euskaldunak ez diren testuinguruetan ere mugitzen direla. Beraz, euskararentzat arnas-gune batetan bizi arren, eragina saihestezina dela esan dezakegu.

Eta maila makrosozialeko faktoreen artean input mediatikoaren (bereziki, telebistaren) eragina izan da gehien nabarmendu den faktorea. Pitkänen-Huhta eta Nikula-k (2013) Finlandiako nerabeekin egindako ikerketan ere hizkuntzaren aukeraketan eta erabileran eragiten duen faktore garrantzitsutzat hartzen dute telebista eta gure kasuan ere baieztapen hori berresten dugu. Beraz, testuinguru soziolinguistikoa eta etxeko input-a bezalako faktoreak alde batetara utzita, telebistak daukan eraginaz jabetzea komenigarria dela frogatu dugu.

3. Zein ezaugarri dauzka gazteek esparru informalean komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntzak?

Gazteek esparru informalean erabiltzen duten idatzizko hizkuntza aztertzeak bi eremu kontuan hartzea eskatzen du: batetik, gazteen hizkuntza; eta, bestetik, teknologia berrietan komunikatzeko erabiltzen den hizkuntza.

Lehenxeago aipatu dugunez, identitatea eraikitzeke orduan hizkuntzak funtzio garrantzitsua betetzen du, eta, gazteen kasuan ere, beren identitatea eraikitzeke erabiltzen duten baliabideetako bat hizkuntza da. Gure ikerketan ikusi dugunarekin ere hori baieztatu dezakegu. Ikerketan parte hartu duten gazteek esan dutenez, ez dute eskolan erabiltzen duten hizkuntza erabili nahi beren esparru informalean eta hori egiteko erabiltzen dituzten baliabideen artean euskalkia erabiltzea dago. Lehenago ere aritu gara euskalkiak edo tokian tokiko hizkuntza-aldaerek betetzen duten funtzioaz, eta hemen ere berriro hori azpimarratu nahi genuke. Urla-k (2012) nabarmentzen duen moduan, hizkuntzaren aldaera estandarra (gure kasuan euskara batua) bere tokian egonkortzen dijoan heinean, euskalkiek komunikazio-funtzio berriak berenganatu dituzte. Eta, dioenez, bereziki hiztun gazteen kasuan tresna lagungarria izan liteke. Gazteek testuinguru akademikoan eduki dezaketen rol hori alde batetara utzi eta identitate propio bat garatu nahi dute beren eremu pertsonalean, eta horretan garrantzitsua da tokian tokiko hizkuntza aldaerek betetzen duten funtzioa. Hizkuntza

Gazteek esparru informalean erabiltzen duten idatzizko hizkuntza aztertzeak bi eremu kontuan hartzea eskatzen du: batetik, gazteen hizkuntza; eta, bestetik, teknologia berrietan komunikatzeko erabiltzen den hizkuntza.

**Kontziente gara
maila sutilagoko
eraginak egon
daitezkeela eta
horretarako
ikerketa
sakonagoak
egiteko beharra
ikusten dugu.**

gutxituak dauden testuinguruetan, tokian tokiko hizkuntza aldaerarik ez dagoen kasuetan, hizkuntza nagusiak bete ohi du funtzio hori. Baina horrek hizkuntza gutxituaren biziraupenean eduki dezakeen eragina kontuan hartuta, uste dugu garrantzitsua izan litekeela tokian tokiko hizkuntza-aldaerek daukaten balioa aitortu, prestigio soziala altxatu eta beren biziraupena bultzatu edo indartzea. Horrek, neurri batean, hizkuntza gutxituaren biziraupena bermatu dezakeela ikusten baitugu.

Teoriaren atalean azaldu dugunez, esparru informalean erabiltzen den idatzizko hizkuntzak ezaugarri propioak ditu. Gure ikerketan ikusi dugunez, idatzizkoa izan arren ahozkotik gertu dagoen komunikatzeko bide bat izateak ere ahozko komunikazioan modu naturalean trukatzeko den informazio emozionala trukatzeko beharra azalerazi du. Eta horretarako baliabideak sortu eta erabiltzen dituzte. Beste ikerketa batzuetan teknologiaren bitartez komunikatzeko erabiltzen den hizkuntzaren ezaugarrien sailkapenak ikusita (Androutsopoulos, 2000; Amonarriz, 2008; Varnhagen, 2010), ikusi dugu hizkuntza bakoitzak ezaugarri propioak eduki arren, estrategia berberak erabiltzen direla batean eta bestean. Alegia, esparru informaleko idatzizko komunikazioan laburdurak erabiltzea eta informazio emozionala helarazteko estrategiak erabiltzea nazioartean eta hainbat hizkuntzatan egiten den joera bat dela ikusi dugu. Eta hizkuntzak desberdinak izan arren estrategiak unibertsalak izan daitezkeela pentsatzera eramán gaitu gure ikerketak.

4. Ikasleak gai al dira testuinguru akademikoa eta informala bereiziz hizkuntza idatzia testuinguru batera eta bestera egokitzeko?

Ikasle nahiz irakasleekin egindako elkarrizketetan jasotako informazioaren arabera eta ikasleen esparru akademikoko nahiz esparru informaleko idatzizko ekoizpena aztertu ondoren, esan dezakegu ikasleek ez daukatela inolako zailtasunik eremu akademikoa eta informala bereizteko eta erraz egokitzen dutela beren idatzizko hizkuntza testuinguru batera nahiz bestera.

Aurrez aipatu dugun moduan, Stenström, Andersen eta Hasundek (2002) nerabeen ahozko hizkuntza aztertu ondoren, ondorioztatzen dute gazteek gaitasuna daukatela erabiltzen duten hizkuntza ingurune sozialera egokitzeko, eta azpimarratzen dute hizkuntzaren aldaera formala erabili behar denean ez daukatela inolako arazorik horretarako. Gure ikerketako gazteen idatzizko hizkuntzaren azterketan ikusi duguna guttiz bat dator Stenström, Andersen eta Hasund-ek (2002) diotenarekin. Hori horrela, esan liteke gazteek erabiltzen duten hizkuntza izan

ahozkoa edo izan idatzizkoa, horrek ez duela baldintzatzen gazte-hizkeraren erregistroa eta erregistro formala inolako arazorik gabe bereiztea.

Horrez gain, azken urteetan jende askoren buruan eta ahotan dabilen gaia da teknologiaren bitartez esparru informalean erabiltzen den hizkuntzak hizkuntza estandarrari zenbateraino eragiten dion. Gure kasuan, ezin dugu zehaztu ikasleek elkarren artean esparru informalean idatziz komunikatzeko erabiltzen duten hizkuntzak zenbateraino eragiten dion esparru formalean idatzi behar dutenari. Esparru informaleko hizkuntza-aldaeraren ezaugarri nabarmenentzat hartzen diren ezaugarriak (euskalkia, laburdurak eta ahozkoa gerturatzeko estrategiak) ez dugu aurkitu esparru formaleko idazlanetan, eta neurri horretan eraginik ez dugula nabari esango genuke. Hala ere, kontziente gara maila sutilagoko eraginak egon daitezkeela eta horretarako ikerketa sakonagoak egiteko beharra ikusten dugu. Idazteko estiloari, gramatikari, hiztegiari eta ortografiari zenbateraino eragiten dion ikusteko uste dugu beharrezkoa dela hizkuntzalaritzaren esparrutik gai honen inguruko azterketak egitea. ●

BIBLIOGRAFIA

- Amonarriz, K. (2008). "Gazte hizkerak - Hizkera gazteak". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 68, 167-183.
- Androutsopoulos, J. (2005). "Research on youth Language". In U. Ammon, N. Dittmar & K. J. Mattheier (Eds.), *Sociolinguistics: An international handbook of the science of language and society* (pp. 1496-1505). Berlin: de Gruyter.
- Androutsopoulos, J. (2000). "Non-standard spellings in media texts: The case of German fanzines". *Journal of Sociolinguistics*, 4(4), 514-533.
- Arrue - ebaluazio diagnostikoa 2011: Ikasleen hizkuntza erabileraren datuak. (2012). Eusko Jaurlaritzak, ISEI/IVEI eta Soziolinguistika Klusterra.
- Block, D. (2007). "Bilingualism: Four assumptions and four responses". *Innovation in Language Learning and Teaching*, 1(1), 66-82.
- Crystal, D. (2001). *Language and the internet*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Davis, B. H., & Brewer, J. P. (1997). *Electronic discourse: Linguistic individuals in virtual space*. Albany, NY: State University of New York Press.
- Edwards, J. (2008). "Foundations of bilingualism". In T. K. Bhatia, & C. R. William (Eds.), *The handbook of bilingualism* (pp. 5-31). Hoboken: Wiley-Blackwell.
- Esnaola, I. (2000). "Euskaraz mintzatzeko erdal 'makuluak' behar? Operatzaile pragmatikoak gazte euskaldunen lagunarteko elka-

- rrizketan. Zenbait azalpen eta erdarazko erabilerarekiko alderaketa". In T. Ormaetxea, G. Aurrekoetxea, P. Salaberri Muñoa & P. Etxeberria (Eds.), *Txillardegi - Lagun giroan* (pp. 147-158). Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Esnaola, I. (1998). "Gazteen hizkera aztertzetik HEArako (Helduen Euskalduntzea eta Alfabetatzea) zenbait irakaspide". *Ele*, 18, 103-115.
- Eusko Jaurlaritza. (2012). *V. Inkesta Soziolinguistikoa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Eusko Jaurlaritza & IVAP. (2010). *Soziolinguistika hiztegia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- García, O. (2009). "Education, multilingualism and translanguaging in the 21st century". In A. Mohanty, M. Panda, R. Phillipson & T. Skutnabb-Kangas (Eds.), *Multilingual education for social justice: Globalising the local* (pp. 128-145). New Delhi: Orient Blackswan.
- Goenaga, J., & Alkorta, E. (2001). *Azpeitiko gazteen jarrera euskararen inguruan*. Azpeitia: Azpeitiko Udaleko Euskara Patronatua.
- Grosjean, F. (2010). *Bilingual: Life and reality*. Cambridge, Mass.: Harvard University Press.
- Grosjean, F. (1982). *Life with two languages: An introduction to bilingualism*. Cambridge, Mass.: Harvard University Press.
- Gumperz, J. J. (1982). *Discourse strategies*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Højrup, L., & Møller, J. (2010). "69 LOVE YA: Studies of contemporary youth language in copenhagen 2008". In J. N. Jørgensen (Ed.), *Love ya hate ya: The sociolinguistic study of youth language and youth identities* (pp. 226-248). Newcastle upon Tyne: Cambridge Scholars.
- Jørgensen, J. N. (2010). "The sociolinguistic study of youth language and youth identities". In J. N. Jørgensen (Ed.), *Love ya hate ya: The sociolinguistic study of youth language and youth identities* (pp. 1-14). Newcastle upon Tyne: Cambridge Scholars.
- Le Page, R. B., & Tabouret-Keller, A. (1985). *Acts of identity*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Lee, J. (2002,). "I think, therefore IM". *New York Times*, p.G.1
- Lewis, C., & Fabos, B. (2005). Instant messaging, literacies, and social identities. *Reading Research Quarterly*, 40(4), 470-501.
- Martínez de Luna, I. (2001). "Euskal herriko gaztetxoek hizkuntza egoera aztertzeko eredu orokorraren proposamena". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 40, 47-66.
- Merchant, J. (2001). *The syntax of silence: Sluicing, islands and the theory of ellipsis*. Oxford: Oxford University Press.

- Muñoa, I. (2002). "Zergaitik eta zertarako erabiltzen ditugu euskara eta gaztelera solasaldi berean?" *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 42, 53-63.
- Musk, N. (2010). "Code-switching and code-mixing in Welsh bilinguals' talk: Confirming or refuting the maintenance of language boundaries?" *Language, Culture and Curriculum*, 23(3), 179-197.
- Oxfordlearning. (2006). "Texting VS writing: The problem with instant messaging". Retrieved 11-24, 2012, from <http://www.oxfordlearning.com/letstalk/2006/10/26/texting-vs-writing-the-problem-with-instant-messag/>
- Pitkänen-Huhta, A., & Nikula, T. (2013). "Teenagers making sense of their foreign language practices: Individual accounts indexing social discourses". In P. Benson, & L. Cooker (Eds.), *The applied linguistic individual* (pp. 104-118). Sheffield: Equinox.
- Soziolinguistika Klusterra. (2012). *Hizkuntzen kale-erabileraren VI. neurketa*.
- Soziolinguistika Klusterra, Topagunea, & Urtxintxa eskola. (2009). *Gazteen hizkuntza-erabileran eragiten duten faktoreen azterketa proiektua*.
- Spatafora, J. N. (2008). *IM learning 2 write? A study on how instant messaging shapes student writing*. (Argitaratu gabeko Master tesia). Queens University, Kingston, Ontario, Canada.
- Stenström, A., Andersen, G., & Hasund, I. K. (2002). *Trends in teenage talk*. Amsterdam: John Benjamins.
- Sternberg, B. J., Kaplan, K. A., & Borck, J. E. (2007). "Enhancing adolescent literacy achievement through integration of technology in the classroom". *Reading Research Quarterly*, 42, 416-420.
- Tagliamonte, S. A., & Denis, D. (2008). "Linguistic ruin? LOL! Instant messaging and teen language". *American Speech*, 83
- Todeva, E., & Cenoz, J. (Eds.). (2009). *The multiple realities of multilingualism: Personal narratives and researchers' perspectives*. Berlin: Mouton de Gruyter.
- Urla, J. (2012). *Reclaiming Basque: Language, nation and cultural activism*. Reno: University of Nevada Press.
- Varnhagen, C. K., MacFall, G. P., Pugh, N., Routledge, L., Sumida-MacDonald, H., & Kwong, T. E. (2010). "Lol: New language and spelling in Instant Messaging". *Read Writ*, 23, 719-733.
- Vermeij, L. (2004). 'Ya know what I'm sayin'? "The double meaning of language crossing among teenagers in the Netherlands". *International Journal of the Sociology of Language*, 170, 141-168.